

2026ko OTSAILA

BERMEON ZER?

Otsailak 2 eta 8

Demiku auzoko jaiak

Otsailak 4

Santa Ageda bezpera

Otsailaren 13tik 21era

Aratusteak

BERMEOKO TABERNEN MOZORRO TXAPELKETA

2026KO OTSAILAREN 17AN



1. XEDEA: Bermeoko Udalak Bermeoko Tabernen Mozorro txapelketa antolatuko du, aratuste martitzenean, 2026ko otsailaren 17an.

2. PARTAIDEAK: Txapelketa honetan, Bermeoko udalerriko tabernetek parte hartu dezakete.

3. IZEN-EMATEA: Izena emateko epea aratuste martitzenaren aurreko barikuan, otsailaren 13an, amaituko da, 12:00etan

- Interesdunek izena eman beharko dute Kultura eta Hezkuntza Sailaren bulegoan, telefonoz (94 617 91 57) zein posta elektronikoz (kultura@bermeo.eus).

- Izena eman dutenen zerrenda udaleko sare sozialetan jakinaraziko da, txapelketa baino lehenago.

4. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

- Txapelketa honetarako, tabernetek apainduta eta tabernariak gaiarekin bat mozorrotuta egon beharko dute, aratuste martitzenean, otsailaren 17an, goizeko 11:00etatik aurrera.

- Izena ematen duten tabernei parte-hartzaileen kartela emango zaie ikusgai jartzeko beraien tabernan.

5. SARIAK:

1. saria: 200 €-ko balioko otzara

2. saria: 150 €-ko balioko otzara

3. saria: 100 €-ko balioko otzara

Otzarak delikatesen produktuekin beteta egongo dira.

6. TABERNA IRABAZLEEN AUKERAKETA:

- Epaimahaia Jai Batzordeko ordezkariak osatuko dute.
- Epaimahaia tabernak ikusiko ditu, aratuste martitzen goizean.
- Epaimahaiko kide bakoitzak taberna bakoitzaren puntuazioa emango du, 1etik 10era. Puntuazio guztiekin, irabazleak aterako dira.
- Epaimahaiaren erabakia eguerdian jakinaraziko zaie taberna irabazleei, eta udaleko webgunean eta sare sozialetan ere emango dira jakitera irabazleen izenak.
- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

7. EPAIMAHAIAREN BALORAZIOA:

Epaimahaia honakoak izango ditu kontuan:

- Apainketaren orijinaltasuna.
- Erabiliko diren materialentzako kontsumo orekatua erabiltzea eta ingurumena errespetatzea.
- Tabernarien mozorroa eta tabernaren apainketa bat etortzea.
- Euskara erabiltzea.

8. OHARRAK:

1. Txapelketan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar.

DEMIKU AUZOKO KANDELARIA JAIK

Otsailak 2, astelehena

KANDELARIA EGUNA

11:30ean. Txupinazoa

12:00etan. Meza (San Blas zintak eta kandelak salgai egongo dira)

13:00etan. Luntxa eta Arrekatxutxa triki pandero taldea

Otsailak 8, domeka

10:00etan. Demiku eta Katillotxu arteko mendi irteera

11:30ean. Umeentzako jolasak eta tailerrak

12:00etan. Josepa Kale Kale taldearen ekitaldia

13:00etan. Meza (San Blas zintak eta kandelak salgai egongo dira)

13:30ean. Luntxa eta Josepa Kale Kale taldearen ekitaldiaren jarraipena

13:45ean. Ahizko tostada txapelketa: izena ematea

Ondoren, tostada txapelketaren sari-banaketa

Antolatzaileak: Bermeoko Udala eta Demiku auzoko bizilagunak



03 Martitzena
Santa
Eufemia
elizan
12:00etan

OSPAKIZUNA
SAN BLAS

Bedeinkapenak

Antolatzailea: Bermeoko Parrokiak

04 Eguaztena

MINBIZIAREN AURKAKO MUNDUKO EGUNA

ITXAROPENAREN BESOKOAK

Minbiziaren Aurka Bizkaian elkarteak aurtien ere martxan jarri du Itxaropenaren Besokoak kanpaina. Aurtien ere, kategoria desberdinetako jokalariei, talde teknikoei, arbitroei eta kirol-taldeetako hurbilekoei besoko berde bat erakusteko deia egiten die, urtarilaren 30etik otsailaren 8ra bitarteko asteburuetan, itxaropenaren adierazle. Gainera, elkarteak gizarte osoaren inplikazioa nahi du, eta, horretarako, eskumuturreko berdeak banatuko ditu otsailean zehar.

Minbiziaren Aurkako Elkartek gaixoen eta euren inguruko bizi-kalitatea hobetzeko doako zerbitzuak eskaintzen ditu. Laguntza psikologikorako edo behar denerako, 900 100 036 telefonora deitu daiteke.

Aurrez aurreko informazioa Bermeon: astelehenetan, eguaztenetan eta eguenetan, 18:00etatik 20:00etara, Erreteneko lokalean.

Antolatzailea: Minbiziaren Aurka Bizkaian





Bermeoko
Herri Eskola



Erdu ezetuten!

Proiektu berritzaileen bidez, ikasleen
inklusioa, ongizatea eta arrakasta
bilatzen duen eskola da gurea

ATE IREKIAK: URTARRILAREN 26TIK 30ERA
AURRE MATRIKULA: OTSAILAREN 2TIK 13RA

HARTU HITZORDUA
94 688 04 77

04 Eguaztena



SANTA AGEDA BEZPERAKO KALEJIRAK

Bermeoko Herri Eskolaren kalejira

Herri Eskolatik hasita

11:00etan

Antolatzailea: **Bermeoko Herri Eskola**

Erroxape Abesbatzaren eta Arrekatxutxa taldearen kalejira

Musika Eskolatik hasita

12:00etan

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Sagrado Corazón Ikastetxearen kalejira

Sagrado Corazón Ikastetxetik

17:00etan

Antolatzailea: **Sagrado Corazon Ikastetxea**

Eleizalde Ikastolaren kalejira

Sancti Spiritus udal zaharren egoitzatik

18:00etan

Antolatzailea: **Eleizalde Ikastola**



05 Eguena

Eleizalde
Ikastolan
17:30-19:30

FAMILIA ESKOLA

'GURE NERABEEN BIDELAGUNAK. NOLA ULERTU GURE SEME-ALABAK?'

Izena eman behar da karte-leko QR kodearen bitartez

Informazio gehiago: www.gizbermeo.blogspot.com eta 675 025 018

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Gizarte eta
Kultura Etxean
18:00etan

PROIEKTUAREN AURKEZPENA

'MEMORIA BIZIA, MEMORIA KOLEKTIBOA'

Urte asko daramatzazu lanean, etxea aurrera ateratzen, gainontzekoak zaintzen eta agian inoiz ez diozu garrantzia handirik eman. Oraingoan, Bermeoko emakumeen bizitzako istorioak ezagutu eta ikusgai jarriko ditugu. Proiektu honetan, argazki-albumen bidez emakumeok bizitako gogoratu eta partekatuko dugu. Lehenengo saioan, zer eta nola egingo dugun azalduko dugu, zergatik den garrantzitsua.

Ez da izenik eman behar, etortzea nahikoa da.

65 urtetik gorako emakumeei zuzendua

Trebatzailea: Ainhoa Resano Melado

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**





BERMEO

BHI Bermeoko
Institutua



26/27 IKASTURTERAKO
AURREMATRIKULAZIOA
OTSAILAREN 2TIK 13RA ARTE.
ATE IREKIAK OTSAILAREN 2AN
ARRATSALDEKO 17:30EAN.

ZURE ZAIN GAUDE!

TLF: 944 28 80 66 · EMAIL: ZUZENDARITZA@BERMEOBHI.EUS

AURREMATRIKULA EGITEA BEHARREZKOA DA
26/27 IKASTURTEAN HEMEN IKASI AHAL IZATEKO

05 Eguena
Gizarte eta
Kultura Etxean
19:00etan

HITZALDIA

EUSKARAREN JATORRIA

Bermeen jaiotako Jon eta Javier Goitia anaiek, bizkaieran, euskararen eta gaztelaren sakontzen ibili dira bitzta osoan, bai eguneroko hitzetan, bai gaztelaratik datozela dioten hitzetan zein hemengo eta kanpoko toponimian ere.

Hizlariak: Javier Goitia eta Jon Goitia ikerlari bermeotarrak

Antolatzailea: **Euskeraren Jatorria**

Laguntzailea: **Bermeoko Udala**

06 Barikua
Kabidxen
19:00etan



AURKEZPENA

DONOSTIAKO HARRERA SAREAREN AURKEZPENA

Donostiako Harrera sarea gizarte-bazterketa larrian kalean dauden herritarrak laguntzeko harrera-sarea da

Hizlaria: Ainhoa Unanue Mentxaka, Donostian bizi den bermeotarra
Euren materiala erosteko aukera egongo da
Doan

Antolatzaileak: **Donostiako Harrera Sarea eta Kabidxe**

07 Zapatua
Areneko
kiroldegian

KIROLA

ESKUBALOIA

Haurrak mutilak: Talape – Gaztelueta

Haurrak neskak: Sollube – Kukullaga

Beterano neskak: Urdaibai – Basauriko Beteranoak



11 Eguaztena

EMAKUME ZIENTZIALARIEN NAZIOARTEKO EGUNA

13 Barikua
Kabidxen
19:00etan

HITZALDIA

'GAUR EGUNGO ERREPRESIOA'

Torturaren kontrako eguna dela eta, gaur egungo errepresioari buruzko hitzaldia eta Fernando Garcia Jodra euskal preso politikoaren eskulanean erakusketa. Zaballako kartzelan papiroflexiaz egindako izar desberdinak zelan egiten dituen ikusteko aukera egongo da

Doan

Antolatzailea: **Aske eta Kabidxe**

Erroxxaperen
lokalean
19:00etan

EKITALDIA

BINGOA

Antolatzailea: **Erroxxape Emakumeen Elkarte**

Kapillan
20:00etan

EKITALDIA

BAKARRIZKETA GAUA

Sarrera. 8 €

Antolatzailea: **Nuntxaku**

ARATUSTEAK

13 Barikua
Goiko
plazatik
20:00etan



KANTA KANTA LORUE

Aratusteei ongietorria emateko kalejira egingo dute umoretsu eta gogotsu

Mozorroa soinean jantzita, etor zaitez aratuste barikua kantuz pasatzera!

Kantatzen duen herria bizirik dagoen herria delako!

Antolatzailea: **Kanta kanta lorue**

14 Zapatua
Arrantzaleen
Museoan
11:30-13:00

UMEENTZAKO TAILERRA

Inoiz ikusi al duzu arrainik mozorrotuta edota koloreetako piratarik? Arrantzaleen Museoan sareak eta aingurak fantasia hutsa bihurtuko ditugu. Etorri itsasoko altxorretan oinarritutako mozorro eta maskarak sortzera!

Adina: 4-12 urte

Prezioa: 1 € umeko

Erreserba egitea beharrezkoa da

Informazioa eta erreserbak:

94-688 11 71

arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoa**



Gizarte eta
Kultura
Etetik
12:30ean

LANTZEKO INAUTERIAK

Kalejira Gizarte eta Kultura Etxean hasiko da eta Lameran amaituko da, liburutegi aurreko plaza txoan. Dantzan egiteko geldioneak egingo dituzte: Sancti Spiritus zaharren egoitzan, Goiko plazan, Taraskan eta Lameran

Alkartasuna Dantza Taldearen 50. urteurrena dela eta:

15:00etan: herri Bazkaria frontoian

18:00etan: erromeria Begibiderek

Ondoren: MJ Pepiñotan

Antolatzailea: **Alkartasuna Dantza Taldea**

Laguntzaileak: **Bermeoko Udala, Tiriki Trauki fanfarrea eta MJ Pepiñotan**



Goiko
plazatik
12:30ean

ARATUSTEETAKO KALEJIRA

Antolatzailea: **Coro Maika**



16 **Astelehena**
*Demiku
jubilatuen
elkartean
17:30ean*

ARATUSTEAK
**TOSTADA ETA MOZORRO
TXAPELKETA**

Tostada eta mozorro onenentzako sariak
banatuko dira

Izen-ematea: egunean bertan

Antolatzailea: **Demiku jubilatuen elkartea**



17 **Martitzena**

ARATUSTE MARTITZENA

HERRIKO IKASTETXEEN KALEJIRAK

HHko eta LHko ikasleak kalez kale ibiliko dira
Herrian zehar. Goizez

TABERNEN XXIII. MOZORRO TXAPELKETA

Fanfarreaz lagunduta, goizez ibilbidea egingo da taberna
parte-hartzaileak ikusteko

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

ROSS DANTZA ESKOLAREN EKITALDIA

Lameran. 13:00etan

Antolatzailea: **Ross Dantza Eskola**

DISKO TXIKI FESTA

Lameran (euria balitz, Bermeoko Herri Eskolako karpan)
17:00etan

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

IV. TOSTADA LEHIAKETA

Ogizko edo ahizko tostadak aurkeztu ahalko dira.
Tostadak aurkezteko ordua: 18:00etatik 18:30era arte

Erroxaperen lokalean. 18:00etatik aurrera

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkartea**



21 **Zapatua**
*Bermeoko
Kafe
Antzokian
19:30ean*

ARATUSTEAK
VADE RETRO PARTY

Unholy Covers eta DC Data

Mozorrotuta etorri eta adi ordutegi berriari!

Sarrerak: 12 € aurretiaz (Luma Liburudenda
eta Bermeoko Kafe Antzokia) eta 15 €
leihatilan

Antolatzailea: **Spookypheria Productions**



15 **Domeka**
Santa
Eufemia
elizan
11:30-13:00

DENDA SOLIDARIOA **KIDENDA**

Antolatzailea: **Kidenda**

18 **Eguaztena**
Bermeoko
Institutuan
17:30-19:30

FAMILIA ESKOLA

'GURE SEME-ALABEN LEHEN KONTSUMOAK. NOLA LANDU FAMILIAN?'

Izena eman behar da karteiko QR
kodearen bitartez

Informazio gehiago:
www.gizbermeo.blogspot.com
eta 675 025 018

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



19 **Eguena**
Liburutegian
18:15-19:45



IRAKURLEEN TXOKOA

'DENA AMETSA DEN IRUDIPENA', Leire Vargas

Gazte baten noraezak, barne-minak eta egokitu ezinak ageri dira poema sorta honetan: bere buruarekin, gizartearekin, bikote barruan... Guztiak ere, hizkuntza doi eta dotore batean adieraziak. Ahots gazte eta berri bat, edertasun eta nortasun handi baten jabe, Irun Hiria poesia-saria merezi izan duena.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Liburutegian
18:30ean

LIBURU AURKEZPENA

'SORGINAK, PUTAK, TERRORISTAK', Olatz Dañobeitia Ceballos

Ariketa honek helburua du Euskal Herriko gatazka politiko armatuan borrokatu diren emakume torturatuek pairatutako bortxa berezitua aztertzeke eta kokatzeko marko feminista bat eraikitzea, elkarlanean eta orain arte egindako aitortza eta osatze bidearen jarraipen gisa. Ikuspegi feministatik aztertuz, erreparazio pertsonala eta kolektiboa helburu

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



20 **Barikua**
Liburutegian
18:00etan

IPUIN KONTALARIA

'ZORTE TXARREKO OTSOAK'

Maite Franko. 50 minutu.

4 eta 8 urte bitarteko umeentzat (guraso barik)

Ez da izenik eman behar

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



Erroxaperen
lokalean
19:00etan

FILM EMANALDIA

'UN FUNERAL DE LOCOS'

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkarte**

Kabidxen
19:30ean

MAGIA IKUSKIZUNA

'MUNDUKO MAGORIK TXARRENA'

Munduko magorik txarreña izango da, baina ile-apaintzaile modura ez du preziorik

Doan

Antolatzailea: **Guzan eta Kabidxe**



21 **Zapatua**
Areneko
kirroldegian

KIROLA

ESKUBALOIA

Haurrak mutilak: Talape – Beltzagorri

Haurrak neskak: Gaztelugatxe – Arangoiti

Haurrak neskak: Kurtzio – Jarrileras

Haurrak neskak: Demiku – Basauri Urbi

SATEVI (24 ORDU, 51 HIZKUNTZA) _____ 900.840.111

AHOLKULARITZA: Biktima, senide, eta profesionalentzat. Doakoa, ez da fakturan agertzen

SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMEI
ARRETA OSOA (24 ORDU) _____ 900.840.977


GIZARTE ZERBITZUAK, ABOKATUA, PSIKOLOGOA _____ 946.179.160

- Informazioa eskatzeak ez zaitu beste pausorik ematera behartzen
- Behar duzun edozertarako deitu

INDARKERIA MATXISTARI AURRE
EGITEA GUZTION ARDURA DA



25 Eguaztena
Liburutegian
18:15-19:45



IRAKURLEEN TXOKO FEMINISTA

“FUN HOME: FAMILIA-ISTORIO TRAGIKOMIKO BAT”, Alison Bechdel

Danele Sarriugartek itzulia.

Alison Bechdelek, bere memoria grafiko aitzindari eta arrakastatsuan, aita zenarekin izan zuen harreman zaila kontatzen du.

Bruce Bechder, pertsona urrun eta zorrotza, ingeles-irakaslea zen, bai eta herriko ehorztetxearen zuzendaria ere -Alisonek eta gainerako senideek “poz-etxea” deitzen zioten ehorztetxeari-. Unibertsitatera iritsita, Alisonek, lesbiana zela esan ostean, aita ere gaya zela deskubritu zuen. Aste gutxiren buruan, aita hil egin zen, eta misterio bat utzi zion alabari oinordetzan, argitu zezan.

Komikiaren eskuetan, historia pertsonala sotiltasun eta botere itzeleko kontakizun bilakatzen da; indar kontrolatuz idatzita dago, bai eta umorez, erreferentzia literario aberatsez eta xehetasun bihotz-haustailaz jantzita ere.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

26 Eguena
Gizarte eta
Kultura
Etxean
18:00-20:00



TAILER PRAKTIKOA

ZAINTZARAKO SUKALDARITZA

Zelan egin nire umeak arraina jan dezan drama barik? Eta amamak ezin duenean janaria ondo murtzikatu? Zenbat aldiz pentsatu duzu: “zer prestatuko dut gaur?”... eta tortilla egin duzu berriro? Lasai. Ez zara bakararra. Sukaldean arituko gara modu kontziente eta eraldatzailean, eta elikadura-gomendio erabilgarriak ezagutu eta errezeta erraz baina originalak landuko ditugu. Esperientziak partekatzen, ikasten eta hausnartzen ere arituko gara: nola bizi dugu aitatasuna? Zer gertatzen da zaintza geure gain hartzen dugunean?

Amantala eta tuperrak ekarri

16 urtetik gorako gizona koentzatu

Trebatzaileak: Aritz Resines Ruiz, Andrea Larrea Garcia eta Nahia Zeziaga Bengoa

Izen-ematea: berdintasuna@bermeo.eus - 688 638 449

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

27 Barikua
Liburutegian
18:00etan

FILM EMANALDIA

TXIKIZINE

Umeentzako filma egongo da
umeentzako liburutegian

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Euskal
Gunean
18:30ean

HITZALDIA

'EUSKARA MUNDUAN KOKATZEN'

Hitzaldi-tertuliatxoa egingo dute euskararen
berezitasunak ezagutzeko. Nolakoa da euskara
eta zergatik da hain desberdina?

Izen-ematea: 607 609 580

Izena emateko azken eguna: otsailak 25

Doan

Antolatzailea: **Bermeoko Berbalagun**



Nestor
Basterretxea
aretoan
20:00etan

ANTZERKIA

"7 URTE", VIDANIA

Sinopsia: Hiru gizon eta emakume bat elkartzen dira euren
bulegoan lanordutik kanpo. Laurak urtetan bazkide izan arren, ez
da lagunarteko bilera bat. Haien beldurrik handiena egia bihurtu
da, ordu batzuk falta dira poliziak bulegotara joan eta lau bazkideak
atxilotzeko. Iruzur fiskala da arrazoia. Bilera horretan, haien ondoan,
bitartekari bat dago... Zergatik? Zer egin? Zenbat balio du 7 URTE
kartzelan pasatzeak? Nork hartuko du errua?

Egileak: Iñigo Gastesi eta Aitor Beltran


Zuzendaria: Agurtzane Intxaurreaga

Aktoreak: Kandido Uranga, Jon Olivares, Itziar Atienza, Aitor Beltran
eta Iñigo Gastesi

Sarrera: 12 € (deskontudunak 9 € leihatilan bakarrik). Salgai
otsailaren 16tik aurrera Gizarte eta Kultura Etxean eta bermeo.eus
webgunean

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza



27 Barikua
Kabidxen
20:30ean

KONTZERTUA GARTXOT

Gartxot kantautore donostiarrak Bizirik Gaude lan berria aurkeztuko du. *Kabidxeko barikuak* izango da aurkezpen bira honen lehen geltokietako bat

Doan

Antolatzaileak: Bermeoko txosna batzordea eta Kabidxe



28 Zapatua
Taraskatik
09:30-14:30

IRTEERA 'INGURUETATIK OINEZ'

Ibilbide zirkularra egingo dute. Zailtasun gutxikoa izango da, beraz, edonork egiteko modukoa izango da

Izen-ematea: 607 609 580

Izena emateko azken eguna: otsailak 25

Doan

Antolatzailea: Bermeoko Berbalagun



GIZ

LAN-ESKAINTZEN HARPIDETZA ZERBITZUA

Lan-eskaintzak Whatsapp bidez jasotzeko, 688819950 zenbakira idatzi. Zerbitzuan alta emateko, 688819950 telefono-zenbakia gehitu behar da mugikorrekotako kontaktuen agendan, eta www.gizbermeo.blogspot.com webguneko eskaera-inprimakia bete.



XAKE ESKOLAK

10 urtetik gorakoentzat

Barikuetan, 17:00etatik 18:00etara,
Gizarte eta Kultura Etxean
10-14 urte: 15 € hilero
14tik gora: 20 € hilero

**INFO + excipiente@hotmail.com eta
688 819 950 (WhatsApp) - 946 179 158
giz@bermeo.eus**



BEHARGINTZA

Ekintzailtzarako laguntzen 1. deialdiko tutoretza eta ikastaroa

Bizkaiko Foru Aldundiak enpresak sortu eta abian jartzeko dirulaguntzen 1. deialdia zabalduko du 2026ko martxoaren 16tik apirilaren 8ra bitartean.

Garrantzitsua:

- Dirulaguntza eskatu ahal izateko tutoretza eta ikastaroa egin beharko da nahitaez.
- Deialdi honetara aurkeztu ahal izango dira 2025eko uztailaren 31tik 2026ko martxoaren 16ra bitartean sortu edo transmititu diren enpresak.

Zenbatekoa:

- 5.000 €-tik aurrera, enpresa sortzen denean
- 10.000 €-tik aurrera, negozioa transmititzen denean

Dirulaguntza jaso ahal izateko:

- Erakunde homologatu baten aholkularitza jaso behar da, eta
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekintzailtza Eskolako prestakuntza-ikastaroa egin behar da.

Behargintza erakunde homologatua da, eta prozesu osoan orientazioa eta laguntza eskaintzen dugu.

Informazio gehiago:

94 617 91 90

behargintza@bermeo.eus

Enpresak sortzeko edo transmititzeko tutoretzak eta ikastaroa



BFA eta udalak kofinantzatuta



Kultur Zerbitzuak

LUDOTEKA

6-11 urte bitarteko ume eta gaztetxoentzat

Bariku eta zapatuetan: 17:00-20:00

Gizarte eta Kultura Etxean

UME TXIKIEN AISIALDIKO ZERBITZUA

0-5 bitarteko umeentzat

Gizarte eta Kultura etxeko 1.2. gela

Umeak gurasoeekin egon behar dira

Astelehenetik barikura, 17:00etatik 19:00etara



Ume txikientzako zerbitzua 0-5 urte OTSAILEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENA	MARTITZENA	EGUAZTENA	EGUENA	BARIKUA
2 PSIKOMOTRIZITATEA	3 JOLAS LIBREA	4 PSIKOMOTRIZITATEA	5 HORMAIRUDIA	6 EGUZKILOREA
9 PSIKOMOTRIZITATEA	10 JOLAS LIBREA	11 PSIKOMOTRIZITATEA	12 ELUR PAMPINA	13 PAILAZOA
16 PSIKOMOTRIZITATEA	17 ITXITA	18 PSIKOMOTRIZITATEA	19 IPUINAREN ORDUA	20 LEPOKO BIRZIKLATUA
23 PSIKOMOTRIZITATEA	24 JOLAS LIBREA	25 PSIKOMOTRIZITATEA	26 ARLEKIN ESKEGITA	27 MARAKA

ASTELEHENETIK BARIKURA 17:00-19:00

Gizarte eta Kultura Etxea-Irakaskinta 14-16. 1.solairua 1.2 gela

GAZTEENTZAKO JARDUERAK IRTEERA: FUN & PLAY PARK (Basauri)

Otsailak 21, zapatua - 16:00-20:00 (Joan-etorria autobusez egingo da, monitoreekin).

Adina: 10-14 urtekoak (2011-2015ean jaiotakoak).

Izen-ematea: GIZen, plaza kopurua bete arte. Plaza kopuru mugatua

OHARRAK: Plazak esleitzeko, izen-ematearen ordena jarraituko da. Bermeon erroladatutakoek lehentasuna izango dute. Plaza guztiak betetzen badira, itxarote-zerrenda sortuko da.

INFO + eta izen-ematea

www.gizbermeo.blogspot.com - 688 819 950 (WhatsApp)
946179158 - giz@bermeo.eus



ERAKUSKETAK

Arrantzaleen Museoan

'OLATUAREN ENBATEAN. EMAKUMEAK ETA ITSASOA XX. MENDEAN', ALDI BATERAKO ERAKUSKETA

Zalantzarik gabe, ezin da gure herriko historia hurbila eraiki emakumeak, lan-munduan ez ezik, familian ere izan duen funtsezko papera kontuan hartu barik, rol horrek Bermeo eraikitzea eta garatzea ahalbidetzen baitu.

94 688 11 71

arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Martitzenetik zapatuta: 10:00 – 16:00

Domeka eta jaiegunak: 10:30 – 14:30

Astelehenak itxita

Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoa**



Berhaz Bulegoan

JAVIER TORREREN 'PINTURAZ GOZATZEN'

Bermeo eta itsasoarekin lotutako paisaiak beti ageri dira bere artelanetan. Argazkietan inspiratzen da eta bere artista kuttunen lanak erreproduzitzen ditu.

Bulegoko ordutegia:

Astelehenak, eguaztenak eta barikuak:
08:00-15:00

Martitzenak eta eguenak: 08:00-14:00
eta 16:00-18:00

Apirilera bitartean



Nestor Basterretxea Aretoan

ERROXAPEKO IKASTAROETAN EGINDAKO LANEN ERAKUSKETA

Otsailaren 27tik martxoaren 6ra bitartean

Egunero, 19:00etatik 21:00etara

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkartea**

BERMEOKO HAURRESKOLA

2025-2026 ikasturterako izena emateko epea
zabalik (sarean edo aurrez aurre).

0 eta 2 urte bitarteko haur eskola publikoak
doakoak izango dira guztientzat
(2024-2025ean jaiotakoak)

Informazio gehiago:

www.haurreskolak.eus / 94 688 05 63

bermeo.bermeo@haurreskolak.eus



EUSKERA SAILA

Nagusien antzerki tailerra

Urritik ekainera bitartean

Eguaztenetan, 19:30etik 21:30era

Info+: www.bermeon-euskaraz.eus,

Berhaz eta Euskera Saila



KZ GUNEA



IT TXARTELAK ATERATZEKO AZTERKETEN DATAK

Otsailaren 12an:

13-30-15:30 / 15:30-17:30



DOHAINI!
tlf: 608377435

Zubiaur tar Kepa 26-28
1. solairuan (udal-azokan)
Tel.: 944033325
www.kzgunea.eus
tutor.bermeo@kzgunea.net

ZINEA

NESTOR BASTERRETxea ARETOAN

Astero filmen informazioa udalaren webgunean, Bermeo Zabaltzen APPan eta sare sozialetan zabalduko da. Sarrerak: salanestorbasterretxea.sacatuentrada.es

Umeentzako filmak

Oilaskoerbi eta marmotaren sekretua
Frankie y los monstruos
Ochiren kondaira
Evolution
Baba Yaga

Nagusientzako filmak

Ídolos
Áida y vuelta
Tres adioses
Cumbres borrascosas
Hamnet

SARREREN PREZIOA:

Zapatu eta domeketan: 6,00 €

Astelehenetan, ikuslearen egunean: 4,50 €

Umeen filmak: 4,50 €

ORDUTEGIA:

NAGUSIEN FILMAK

Zapatuetan eta domeketan: 19:30ean

Astelehenean (ikuslearen eguna):

19:00etan eta 21:30ean

UMEEN FILMAK

Zapatuetan eta domeketan: 17:00etan

*Oharra: ordutegiak aldatu ahal izango dira, filmak luzeak direnean.





Martxoan:

- Emakumeen Nazioarteko Eguna
- Motx pailazoa
- Tinko euskarazko filmak
- Eleizalde Ikastolaren
60. urteurrena: Ikaslegoien bazkaria
- Itsas Gudari Eguna

Jarri hemen zure publizitatea

Prezioa: 250 €

94 617 91 57
kultura@bermeo.eus

www.bermeo.eus

